



-Arabian zenbait espezie inbaditzaileen kontrako borroka etengabea da. Haien artean, Izkin ager daitekeen bat bisoi amerikarra da (*Neovison vison*). Horren eraginak eta konponbideak aztertu beharko dituzue.

Lanaren nondik norakoak:

- Banatu lana taldekideen artean, informazioa biltzeko:
 - a) Zeintzuk diren bisoi amerikarraren ezaugarriak eta zer habitatetan bizi den.
 - b) Haren elikadura-ohiturek zer kalte zuzen eragiten dituen, zertaz elikatzen den.
 - c) Zergatik eragiten dion kaltea bisoi europarraren iraupenari.
 - d) Zer neurri har daitezkeen haren kontra.
- Idatzizko zirriborro txiki bat prestatu, gero ahoz gelan azaltzeko, taldekideen artean banatuta.
- Idatzizko zirriborroak gutxienez 200 hitz izan behar ditu; erabilitako informazio-iturriak idatzita utzi.
- Zirriborroa ahozko aurkezpenaren aurretik irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan. Zuzenketak egin ondoren, audioa grabatu ahozko aurkezpenaren aurretik.